



ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA

XII. AGINTALDIA

Serie B Información, control e impulso

Informazioa, kontrola eta sustapena **B Saila**

XVII Interpelación

Itauna **XVII**

Número 9a

Bilbo, 2023ko abenduaren 1a
Bilbao, 1 de diciembre de 2023

9a alea

ASUNTO: El futuro de las actuales instalaciones de MercaBilbao.

AUTOR: Gómez-Guadalupe García-Tejedor, Pablo

Admisión a trámite

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 28 de noviembre de 2023, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

Tramitación: Admitir a trámite.

Calificación: Conformidad con la calificación propuesta por el autor

Órgano Destino de Tramitación: Pleno de Control

Procedimiento de Tramitación: Normal

Plazos:

Inclusión de interpelación en el orden del día del Pleno transcurrido desde su presentación el plazo de: 9 días

Otros acuerdos

Ordenar Publicación en el BOJJGG

Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable

Regulaciones:

Reglamento: Artículo 160 y sgts. Artículo 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 28 de noviembre de 2023.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

D. Pablo GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR, Apoderado del Grupo Juntero Populares Vizcaínos, al amparo de los artículos 160 y siguientes del Reglamento de las Juntas Generales de Bizkaia vigente, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Diputada Foral de Promoción Económica, D^a. Ainara BASURKO URKIRI, sobre el futuro de las actuales instalaciones de MercaBilbao.

JUSTIFICACIÓN

En 1971, se inauguraron las primeras instalaciones de MercaBilbao en las campos de Artunduaga, en el municipio de Basauri, lugar en el que lleva desarrollando su actividad durante más de 50 años.

GAIA: MercaBilbaoren gaur egungo instalazioen etorkizuna

EGILEA: Gómez-Guadalupe García-Tejedor, Pablo

Izapidetzeko onartzea

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2023ko azaroaren 28an izandako bileran:

Izapidea: Izapidetzeko onartzea

Sailkapena: Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

Organo hartzailea: Kontrolerako Osokoa

Prozedura: Arrunta

Epea:

Itauna aurkeztu zanetik Osokoaren gai-zerrendan sartzeko: 9 egun

Beste erabagi batzuk

BBNAn argitaratzeko agintzea

Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenarako

Araudi oinarria:

Araudia: 160. artikulua eta hurreng. 92. artikulua

Guztiak horren jakitun egon daitezcan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2023ko azaroaren 28an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri**.

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIRI

Pablo GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR jaunak, Bizkaiko Batzar Nagusietako Bizkaiko Talde Popularreko batzarkideak, indarrean dagoan 160. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, ITAUN hau aurkezten deitso Ainara BASURKO URKIRI Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatuari, MercaBilbaoren gaur egungo instalazioen etorkizunari buruz.

ERRAZOIKETEA

1971n inaugurau ziran MercaBilbaoren lehenengo instalazioak, Basauriko udalerriko Artunduaga zelaietan, eta hantxe jarraitu dabe jardunean azken 50 urteotan.

Actualmente, es una de las 24 unidades alimentarias participadas por la sociedad estatal Mercasa (participada por el Gobierno de España a través de la Sociedad Estatal de Participaciones Industriales y el Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación), que posee el 39,37 % de su capital social, mientras que el Ayuntamiento de Bilbao ostenta una participación mayoritaria en el mismo del 60,63 %.

En la actualidad, MercaBilbao emplea de manera directa a más de 1.200 personas, de las cuales un alto porcentaje reside tanto en el propio municipio de Basauri como en otros limitofes.

En mayo de 2022, el Gobierno Vasco anunció el traslado de Mercabilbao de su ubicación actual en Basauri al futuro campus alimentario de Ortuella. Traslado que está previsto para el año 2027.

En la iniciativa del traslado a MercaBilbao de Basauri a Ortuella han tomado parte, además del Gobierno Vasco, la Diputación de Bizkaia y los Ayuntamientos de Ortuella y Bilbao, así como Mercasa (Gobierno de España), y la Red de Parques Tecnológicos de Euskadi.

Aun habiendo transcurrido más de año y medio desde dicho anuncio, lo cierto es que a la fecha no existe proyecto alguno que augure un futuro a las 14 hectáreas que actualmente albergan MercaBilbao.

Y ello, a pesar de que las administraciones implicadas -Gobierno Vasco, Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Basauri- se comprometieron públicamente a dotar de una solución que garantizara la actividad económica al suelo actual, a fin de evitar un impacto negativo en el municipio de Basauri. Lo cierto es que a fecha de hoy no existe ninguna alternativa conocida.

Durante este año 2023 no han sido pocas las declaraciones públicas tanto de los diferentes grupos políticos del Ayuntamiento de Basauri, como de la Diputación Foral de Bizkaia, en las que se reconoce la falta de proyecto para los suelos en los que radica MercaBilbao.

Esta circunstancia debe ponerse en relación con un dato que resulta absolutamente preocupante, como es que Basauri es el segundo municipio con más paro de nuestro Territorio Histórico. En septiembre de 2023, su tasa de paro alcanzaba el 12,77% de su población activa, es decir, 2422 vecinos de un total de 40.324 ciudadanos están en situación de desempleo.

Ante la falta de un proyecto definido para los terrenos en los que en la actualidad está ubicado MercaBilbao y ante el impacto negativo que ello pudiera ocasionar en el municipio de Basauri, entendemos necesario que el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia se pronuncie sobre su implicación al respecto y, en su caso, sobre los planes que pudiera tener sobre los terrenos.

Por lo expuesto, el Grupo Populares Vizcaínos presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Diputada Foral de Promoción Económica:

¿Tiene la Diputación Foral de Bizkaia alguna medida o actuación prevista con relación al futuro desarrollo de los suelos en los que actualmente se ubica MercaBilbao, así como para compensar el previsible impacto negativo que sufriría la comarca?

Bilbao, 20 de noviembre de 2023

Pablo Gómez-Guadalupe García-Tejedor,
Apoderado del Grupo Popular Vizcaíno

Gaur egun, Mercasa estatuko soziedadeak (Espainiako Gobernuak Industria Partaidetzarako Estatuko Sozietatearen eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren bidez partaidetutako soziedadea da) partaidetutako 24 elikagai-unidadeetako bat da. Soziedade horrek kapital sozialaren % 39,37 dauka, eta Bilboko Udalak, barriz, kapitalaren % 60,63.

Gaur egun, MercaBilbaok 1.200 persona baino gehiago enplegatzen ditu zuzenean, eta horreetatik ehuneko handi bat Basaurin bertan eta inguruko beste herri batzuetan bizi dira.

2022ko maiatzean, Eusko Jaurlaritzak iragarri eban Mercabilbao Basauritik Ortuellan izango dan elikadura-campusera lekualdatuko zala. Aldatze hori 2027rako aurreikusita dago.

MercaBilbao Basauritik Ortuellara eroateko ekimenean, Eusko Jaurlaritzaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiak, Ortuellako eta Bilboko udalek, Mercasak (Espainiako Gobernuak) eta Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak parte hartu dabe.

Iragarpen hori egin zanik hona urte eta erdi baino gehiago igaro bada be, gaur egun ez dago MercaBilbaok hartzen dituan 14 hektareetarako etorkizuneko proiekturik.

Eta hori guztia, nahiz eta inplikautako administrazioek —Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Basauriko Udalak— publikoki konpromisoa hartu eben hango lurzorurako jarduera ekonomikoa bermatzeko urtenbideren bat aurkitzeko, Basauriko udalerrian kalterako eraginik izan ez daiten. Dana dala, gaur-gaurkoz, ez da ezagutzen horretarako alternatibarik.

2023an zehar, Basauriko Udaleko eta Bizkaiko Foru Aldundiko talde politikoek adierazpen publiko ugarian autortu da ez dagoala MercaBilbaoren lurzoruetarako proiekturik.

Hori holan izatea lotu behar da benetan arduratzeko modukoa dan beste datu batez, hain zuzen be Basauri bigarren dagoala gure Herrialdean langabetuen kopuruari jagokonean. 2023ko irailean, Basauriko langabezia-tasa biztanleria aktiboaren % 12,77koa zan, hau da, 40.324 herritarretik 2422 dagoz lanik barik.

MercaBilbaoren lursailetarako proiektu zehatzik ez dagoala ikusita, eta horrek Basauriko udalerrian kalterako eragina izan leikela aintzat hartuta, gure ustez, beharrezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak argitu daijala ze inplikazino izango dauen horretan eta ze plan darabilen asmotan lursail horreetarako, asmotan ezer badarabil, behintzat.

Azaldutakoagaitik, Bizkaiko Talde Popularrak honako ITAUN hau egiten deutso Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari:

Bizkaiko Foru Aldundiak aurreikusita ete dauka neurririk edo jarduketarik, batetik, gaur egun MercaBilbao kokatuta dagoan lurzoruan etorkizunean zerbait garatzeko eta, bestetik, lekuz aldatzeak eskualdean izango leuken eragin negatiboa konpentsetako?

Bilbon, 2023ko azaroaren 20an

Pablo Gómez-Guadalupe García-Tejedor,
Bizkaiko Talde Popularreko batzarkidea